

EUSKALDUN FEDEA

TA

KANTARITALDE DONOSTIARRA

EMEZORTZI urte osatu dira Mondragon-ko Euskal-jai ospatsuetan lenengo ekin aldiya egin genduela elkarrekin, Kantaritalde Donostiarrak eta Euskaldun Fedea-tarrak, Norberto Luzuriaga zana ta errenkada oen egilliaren zuzendepean; ta arrezkero anaitasun aundizko korapillo sendozko lotura batek estutzen gaitu, egurketariak ezi bigurra-kin egurra bezela.

Aurten ere agertaldi ederra egin degu karrika Nagusiko Antzoki zarrera Done Tomas egunean, aurretiryoko oiturai zintzo jarraituaz, Euskal-itz jostaldien Batzarrea-kin bat eginik.

Arratsaldeko iru t'erdiyetan lenengo jai aldiyak izan zuben asiya, chistulariyen karrika jira pozgarrizkuakiñ, ta gero Antzokiyan ekin ziyon Migel Oñate maisu yayuaren zuzendepean, onen euskal moldaera ederra joaz, arrabetariyen oskintzarekin azalkayak agintzen zuben bezela, ta chalo aundiyak aditu zituen Oñate jaunak, bere egintza samur eta egokiro antolatugatik.

Euskaldun Fedea-k ekin ziyon ondoren, ¡Aitona! ¡Aitona! izentzat daramakiyen abalziketa eder Jose Ganboa-k apainkiro moldatuarekin.

Gai onen bearketan chit goi mallak achiturik aditu ziran guztiyak; batez ere Felipa Uranga, erraiñ Petra-ren antza irudikaitzez euskal izkuntzan garbiro erabaki zituelako bere ekin aldiyak. Gañera bazirudiyen lan ontaz bestera sayatzen etzanen bat zala; ala, ikusirik Antzokiyan arki ziranak zenbaterañoiko yayotasunean ari zan, chaloka jardun zuten aldi luzean atzarteak pitzatu arte; ta Bitori Arrieta ere etzan atzera gelditu beraren mendeko ekin aldiyarekin. ¡Ori da mingaña,

ori! ¡Ori da garbi itz egítia! ¡Ai zer bi emakume euskaldar yayuak dauzkagun Euskaldun Fedea-n! Oek bezelako maitetasunakin elduko baliyoteke euskaldun emakume guztiyak euskerari, ez litzake gure izkuntza geldituko gaur daguen gisan ertzitua leku ezta ta chikiyan, baik zik suaitz gazte ta indartsuak oi duben bezela, zañak ugariro zabalduko lituzteke urrutiyetaraño.

Ta, ¿zer esango det Gregorio Beorlegi-gatik? ¿Alda inor esango lukienik gai oetan ez dala au maisu aundi bat? Aspaldiko urtietan Antzokiko irudigiyen ez da agertu onen mallak berdinduko dituenik. ¡Ura aitona polita irten zan Done Tomas egunian Antzokiyen jende aurrera, bere illoba *Joñecho*, Manuelcho Uranga mutikua eskutik zubela! ¡Eta zer egoki egin zuten oek biyak beren sayua! Antzokiyen gau artan eskuak ezik oñak ere beartu zituzten ango aulkiyetan eserita zeudenak; irudi guztiyetan irteera berrirotu bearrean arkitu zirala chalo otsak adizera esanarekin, aski da.

Ganboa-k ere sayo bikaña egin zuben *Manu-dantzari* izentzat daramakiyen nere bakarrizketarekin; eta Euskal-itiz jostaldien Batzarreak bere aurkestaldiya egin zuben chistulariyen bilkidarekin sariya emanik, bere gayak goikiro osatu zituelako, Ernani-ko talde osoari; ondoren irakurririk Toribio Alzaga goarpelari jaunak, beti oituratzen duben bezela Batzarrea-ren epala, ta gero Emiliano Mujika jaunaren moldaera eder goikiro moldatutakoa, saritua gertatu zalako; gai ontan Batzarburutza egin zuben izkribalari bikaiñ Adrian Loyarte jaun argidotarrak, aldamenen zituelarik, Joakin Muñoz-Baroja ta beste batzardar batzuek, emanik lenengo jai aldiyari bertsolariyen jardun aldiyakiñ bukaera chit chalo aundipean.

*
* *

Arratseko zortzi t'erdiyetan bigarrenari eman zitzayon arratsaldean bezela arrabetariyen oskintzakin asiya; ta berriro iruditegira aurkestu ziran Euskaldun Fedea-tarrak lendik beziñ yayotasun aundiyan ekiteko beren sayuari ¡*Aitona!* ¡*Aitona!* aurkestatuaz arratsaldean bañon askotaz ere obetuago.

Asperten zalla dan edo nekeak ikaratzen ez duben Gregorio Beorlegi-ren chanda izan zan ondoren, Ero algara, errenkada oen jabe danaren bakarrizketarekin, ta aiñ egokiro ta maisutasun goitsuz egin zuben bere sayua, non oraindik onen bukaeran egin zizkaten chalozko zalapataren otsak aldegiñ ez duben nere belarriyetatik. ¡A, bejondai-

kela Gregorio! ¡Ori dek, ori, mutill gaztian sasoya! Irekin joan litekek Kalais-era ere; bañan ez orain, pakiak egitian.

Onen ondoren, kaskagorri zaill baten irteera etorri zan bere chandaz Sekundino Esnaola maisu bikañaren ardatz mendean; da esatia, Kantaritalde Donostiarra goikiro errainutua, ta onen ekintza zer esanik, edo aitzakirik gabe aitor liteke izan zala osoro ederra, ta chalo ugariyen jabe egiñik aldegin zubela Esnaola jaunak iruditegitik bere karnaba zall ederrarekin, Martzelino Soroa jaun zanaren *Abek istillubak* aurkesta zediñ; gai onen sayua nolakoa izan zan ez det esan nai, nere arrazoyak iñoren kalterako izan ez ditezen; bañan bai, bertsolariyen jardun aldiya izan zala guztiz ona, ta chalo ugari ta chanpon ederrak irabazi zituztela Oloki, Pello Errota, Chirrita, Telleichiki ta beste izenez zein dan oroitzen etzaidan batek; eta orain ¿noiz arte? Ikusiko degu.

JUAN IGNACIO URANGA

